

Mundutik euskarara labur-labur

Itzulpen lantegia
Literaturian

2019ko maiatzaren 11n, Zarautzen



Sarrera

Udaberriko ohitura bihurtua dugunez, Zarautzen izan ginen maiatzeko bigarren asteburuan, Literaturiako egitarau mardularen barruan EIZIEk antolatzen duen itzulpen lantegian. Aurreko edizioetan poesia azpigitulatzeko ibili ostean, mikroipuinen bidea urratu genuen iaz, eta aurtengoan edozein literatur generotako testu laburrak itzultzeko proposamena egin genuen. Argia zen erronka: euskarara hurbildu nahi genituen mapa gainean urrutiko diruditen arren gure artean bizi-bizi dauden hizkuntzak.

Larunbat goizean, 10:00etaik 12:00etara, bi orduko lantegia egin genuen Modelo aretoan, atea itxita. Parte-hartzaileek landuak zituzten itzulgaiak taldekideekin partekatu zituzten. Hamaika sorburu hizkuntzatatik, egile hauen lanak ekarri zituzten euskarara: Andrei Platonov, Marina Tsvetaeva, Constantin Brâncuși, Karel Čapek, John Berger, Savita Singh, Bocar Diong, Léopold Sedar, Inaya Jaber, Saïda Menebhi, Pere Calders, Luis Felipe Lomelí, Juan José Arreola, Ángel García Galiano, Nora Alarcón eta Elvira Espejo. Itzultzaile lanetan eta itzulpenaren nondik norakoak aletzen aritu ziren Aroa Uharte, Iñigo Onandia, Amaia Apalauza, Ainara Maya, Amelia Pérez, Ane Garcia, Ibai Sarasua eta Garazi Ugalde.

Eguerdian, jatorrizko hizkuntzetako zarautzarrekin bildu ginen jendurreko irakurraldia prestatzeko. Haiei esker, euskaraz ez ezik, berezko hizkuntzan ere entzun ahal izan genituen testu itzuliak. Errusiera, errumaniera, txekiera, ingelesa, hindia, arabiera, frantsesa, katalana, gaztelania, kitxua, aimara... Makina bat hots eta ahots desberdin izan ziren taula gainean, Iñaki Alberro txelo-jotzaileak lagunduta.

Eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu saioan parte hartu zuten itzultzaileei, eta, bereziki, jatorrizko testuei ahotsa jartzera hurbildu ziren zarautzarrei. Hemen duzue Mundutik euskarara labur-labur lantegiaren uzta koloretsua. On dagizuela!

Garazi Ugalde Pikabea

Andrei Platonov

TXEVENGUR

—Nola deitzen dira ulertu ezin diren hitz horiek?— galdetu zuen apaltasunez Kopionkinek—Tirminoak al dira?

—Terminoak—erantzun zuen labur Dvanovek.

Barren-barrenean gehiago maite zuen jakineza kultura baino: ezjakitea lursail garbia da, non oraindik ere edozein jakituriaren landareak hazi ahal diren; kultura, ordea, dagoeneko ereindako lursaila da, non landareek lurraren gatzak xurgatuak dituzten eta ez den deus gehiago haziko.

Jatorrizkoa errusieraz: Чевенгур

Itzulpena errusieratik: Aroa Uharte

MOSKVA ZORIONTSUA

Egia esan, ez da ezer berezirik jazoko, ezta hilez gero ere: dagoeneko milaka miliar arimak nozitu du heriotza eta ez da inor ere kexatzera bueltatu.

Jatorrizkoa errusieraz: Счастливая Москва

Itzulpena errusieratik: Aroa Uharte

PERTSONA EZKUTUA

Axolagabetasuna beldurberatasuna baino okerragoa izan daiteke: pertsonaren arima lurruntzen du, su motelak ura bezala, eta ohartzeko bihotzaren ordeztoki lehor bat besterik ez da gelditzen.

Jatorrizkoa errusieraz: Сокровенный человек

Itzulpena errusieratik: Aroa Uharte

DZHAN

Denbora asko bananduta egon ondoren arraroa eta tristea da toki ezagunari begiratzea: oraindik loturik duzu bihotza bertara, baina gauza mugiezinek dagoeneko ahaztu zaituzte eta ez zaituzte ezagutzen, zu gabe bizitza aktibo eta zoriontsu bat bizi izan balute bezala, eta zu haienez arrotz bazina bezala, zeure sentipenetan bakarra, eta orain haien parean zaude zutik zerizan errukarri eta ezezagun.

Jatorrizkoa errusieraz: Джан

Itzulpena errusieratik: Aroa Uharte

Marina Tsvetaeva

Munduan arima kopuru mugatua eta gorputz kopuru mugagabea dago.

Bizitzan nire tokia zein den badakit, eta ez da azkena, ez bainaiz inoiz jartzen ilaran.

*Jatorrizkoa errusieraz
Itzulpena errusieratik: Aroa Uharte*

Constantin Brâncuși

Sinpletasuna konplexutasun ebatzia da.

*Jatorrizkoa errumanieraz
Itzulpena errumanieratik: Aroa Uharte*

Karel Čapek

NAHASTEIA

Mediterraneoan ontziratu ginen. Hain da urdin ederra ezen batek ez baitaki zer den zerua eta zer den itsasoa; hala bada, kostaldeko toki guztietan eta itsasontzi guztietan idazkunak daude, eta non den goia eta non den behea adierazten dute; osterantzean, norbait nahastu liteke. Izan ere, duela gutxi, kapitain batek esan zigun itsasontzi bat nahastu zela, eta itsasora jo orde, zerurako bidea hartu zuen; eta zerua amaigabea denez, ez da oraindik itzuli, eta inork ez daki non dagoen.

AMAIA

*Jatorrizkoa txekieraz
Itzulpena gaztelaniatik : Iñigo Onandia Zarrabe*

John Berger

BEHIN BATEAN AUXONNE-N

Auxonneko postetxea txikia da, eta postetxearen arduradunak begi urdinak ditu. Bi aldiz bakarrik egon naiz han.

Lehen aldian, zuri pakete bat bidaltzera joan nintzen; arduradunak balantzan pisatu bitartean, zure eskuak imajinatu nituen paketea zabaltzen.

«Lau kilo eta hirurehun gramo».

Eskuz bilduriko paketeetan, beti bada mezu bat pisurik ez duena: baliteke jasotzailearen hatzek igortzaileak loturiko kordela desegitea.

Postetxean, nire irudimenean ikusi nituen zure hatzak nik Auxonnen eginiko korapiloa askatzen.

Handik hamar egunera, herrian berriz suertatu nintzen batean, postetxera joan nintzen; oraingoan, zuri gutun bat bidaltzera. Paketea bidali nizun egunaz oroitu nintzen, eta galera baten ziztada sentitu nuen. Zer galdua nuen, baina? Paketea ongi iritsia zen. Zuk zopa egina zenuen erremolatzekin. Eta armairuko apalean paratua zenuen laranjondo-loreen ur destilatuaren botila, zure soinekoen gainean. Galdua zen gauza bakarra paketearen etorkizun laburra zen.

Hildakoengatik negar egiten dugunean, haien esperantzen galeragatik egiten dugu. Paketea zeraman gizona hil balitz bezala; berak jada ezin zuen esperantzarik izan. Gutuna zeraman gizonak hartua zuen haren tokia.

Jatorrizkoa ingelesez: Once in Auxonne

Itzulpena ingelesezetik: Amaia Apalauza

[Nire heriotzarekin adiskidetzen nauena]

Nire heriotzarekin adiskidetzen nauena, beste ezer baino gehiago, leku baten irudia da: leku bat non zure hezurak eta nireak ehortziak, jaurtiak, azaleratuak baitira, elkarrekin. Han-hemen barreiatuak, nahas-mahas batean. Zure saihets bat nire garezurraren gainean bermatzen da. Nire ezker-eskuko metakarpoa zure pelbisaren barnean datza. (Zure bularra nire saihets hautsien gainean, lore bat iduri.) Gure oinetako ehun hezurak hartxintzarra bailiran sakabanaturik. Harrigarria da bion arteko hurbiltasunaren irudi horrek halako bake bat sentiaraztea, izatez kaltzio fosfato hutsa besterik ez baita. Bai, hala da. Zurekin, imajina dezaket leku bat non kaltzio fosfatoa aski baita.

Jatorrizkoa ingelesez: What reconciles me to my own death

Itzulpena ingelesezetik: Amaia Apalauza

Pere Calders

VENUSEN SEMEA

Deklara daiteke sute-egoera bat, gerra bat, edo maleta baten edukia, baina ez maitasun bat. Maitasunaz den bezainbatean, deklarazio guztiak dira indiskretuak, baita hau bera ere.

Jatorrizkoa katalanez: El fill de Venus

Itzulpena katalanetik: Amaia Apalanza

ARIMAREN ISPILUA

Elkar ikusi gabeak ginen inoiz, inon, behin ere, baina hainbesterainoko antza zeukan nire bizilagun batekin, adicetasunez agurtu baininduen: bera ere nahasi egin zen.

Jatorrizkoa katalanez: El mirall de l'ànima

Itzulpena katalanetik: Amaia Apalanza

Bocar Diong

EGUZKI BELTZA

Eguzki hau ez da eguzki guztiak bezalakoa
ez dago ez Zeruan
ez itsasoaren gainean
ez da ateratzen
ez da sartzen
Badator
Nigandik
Gugandik
baino sakonagotik dator
Ekliptseak ez du ezkututzen
Gauak ez du hiltzen
Badabil
Nire eguzkia jainkosa, emakumea, umea da
ez du ikusten
Badabil
desordenaz jauntzirik dator
gizonen bihotzetan ordena jartzera

Jatorrizkoa frantsesez: Soleil noir
Itzulpena frantsesetik : Ainara Maya

Léopold Sedar Senghor

ANDRE BELTZA

Andre biluzia, andre beltza
Bizitza den zure kolorez beztiturik, edertasun den zure formaz jauntzirik!
Zure itzalean hazi naiz, zure eskuen goxotasunak estutzen ditu ene begiak.
Eta hara non Udaren eta Eguerdiaren muinean, aurkitzen zaitudan,
Agindutako lurraldea, kiskalitako lepoaren gain bateko gailurrean
Eta zure edertasunak bihotzean bete-betean kolpatzen nau, arrano baten distirak bezala.
Andre biluzia, andre iluna
haragi trinkozko fruitu umotua, ilun ardo beltzez estalia, nire ahoa lirikotzen duen ahoa
Hodeiertz garbizko sabana, Ekialdeko Haizearen laztan goriek astintzen duten sabana
Tamtam tailatua, tamtam tenkatutakoa irabazlearen hatzen azpian burrunba egiten duena
kontraltoaren zure ahots grabea Maitatuaren kantu espirituala da.
Emazte biluzia, emazte iluna
hatsik ez duen olioia,
olioak arintzen ditu atletaren hegalak, Maliko printzeen hegalak
zeruko loturen gazela, perlak izarrak dira zure azalaren gauaren gainean
izpirituaren jolasen kutixiak, urre gorrizko isladak dirdira egiten duen zure gainazalean.
Zure adatsaren itzaletan, nire larritasuna argitzen da zure begietatik hurbil den eguzkitan.
Emazte biluzia, emazte beltza
iragaiten den zure edertasuna kantatzen dut, Betierekotasunean finkatzen dut horrela
jeloskor den Patuak erraustu baino lehen bizitzaren erroak elikatzeke.

Jatorrizkoa frantsesez : Femme Noire

Itzulpena frantsesetik : Ainara Maya

Inaya Jaber

AMETSA

Mota guztietako gauak probatu nituen,
baina amets berberak
etengabe itzularazten nau,
beti erortzen naiz gain-gainetik
ezagutzen ditudan bisaiez inguraturik,
nire antzirudi den bisaiaik soilik
beldurtzen nau;
izan ere, alaba bakarra naiz,
ez dut ahizparik.

HORRELA IZAN BEHAR LUKE BIZITZAK

Elkarrekin gaudenean
bitxia da nola ez dudan idazten
hitz bakar bat ere
olerki bakar bat ere;
bitxia da nola poesiak
ez duen jada ezer esan nahi.
Gure artean,
horrela
izan behar luke bizitzak.

*Jatorrizkoak arabieraz
Itzulpena gaztelaniatik: Ainara Maya*

Saïda Menebhi

AURRERA GOAZ

Aurrera goaz
burua tente, begirada galduta
mundu zoragarri batez mintzo zinen
guk nahi genuelako helduko den horretaz.

Mundu horretan, esaten zenuen,
hurrek ez dute gehiago ezagutuko miseria,
amek ez dituzte gehiago haien haurtxoak abandonatuko,
emakumeak ez dituzte gehiago kolpatuko,
mespretxatuko, oinperatuko.

Aurrera goaz, oraindik eta beti
eroen eta kondenatuen antzera,
gu iristerako

ametsa banuen jada.

Jatorrizkoa frantsesez : Nous marchions

Itzulpena frantsesetik : Ane Garcia

Luis Felipe Lomelí

EMIGRANTEA

—Zerbait ahaztu duzu?

—Nahiago nuke!

Jatorrizkoa gaztelaniaz: El emigrante

Itzulpena gaztelaniatik: Amelia Pérez

Juan José Arreola

BELDURREZKO IPUINA

Maite nuen emakumea mamu bilakatu da. Neu naiz beraren agertokia.

Jatorrizkoa gaztelaniaz: Cuento de horror

Itzulpena gaztelaniatik: Amelia Pérez

Ángel García Galiano

AZKEN AFARIA

Kondeak gaztelura gonbidatu nau. Edaria, nire kontu, jakina.

Jatorrizkoa gaztelaniaz: La última cena

Itzulpena gaztelaniatik: Amelia Pérez

Savita Singh

RUTHEN AMETSA

Ruthek amets bat egin zuen
horrelako beste asko zituen eginak
bere beste amoranteekin egoten zen orduan
oraingoan bakarrik zegoen bere ohe gainean
eta beste herri bat zen
oraingoan elurra gauerdian bertan hasi zuen botatzen
eta etxe kanpoan
goizean goiz banatu ziren amoranteak
liskar baten ondoren

Ruthen ametsa ez zen hutsala
santu filosofo bat ikusi zuen bertan
zuhaitz mardul baten azpian eserita
izatearen esanahia azaltzen ari zitzaioa
“hizkuntza da unibertso osoa”, esan zuen
“eta haren barruan amoranteak eta bakardadea soilik dira posible”

Ruth zalantzati zegoen
azken finean, zuen guztia hizkuntzan izan zen beti
baina inoiz ez zuen maitasunik jaso maitasunaren truke
eta haren bakardadea josita zegoen
aitaren oinazeez eta amaren lotsaz
bertara nolabait sartu ziren amorante alderrai bakan batzuk
gibelean beren oheak soilik utzi zituztenak

Ruthek ikusi nahi du
amets hori behin eta berriz
jakiteko bada ere
hizkuntzan nola eskuratu
bakardade distiratsuaren epela
nola iraun elurrezko hiri honetan

*Jatorrizkoa hindiz
Itzulpena ingelesetik: Ibai Sarasua*

Nora Alarcón

KANTUA

Kantu bat naiz loretan
gitarra baten bihotzean,
hizkuntza baten heriotzaren aurka kantatzen duen norbait.
Lurrean landatutako kitxua hazi bat izan nintzen.
Urtzaroko erreka-ondoan aske,
koloretako zelai batean
korri egiten nuen gauez gau
ipurtargien atzetik.
Tristeziaren zingiretan
poeta bat nuen kausitu,
bere herriaren poemak kantatuz.
Trumoi edo tximista izan nahi zukeen.
Orobat aurkitu nituen gero
neba-ahizpa aimarak eta ashaninkak,
haien poesien bidez
ama-hizkuntzak galbidetik salbatu nahian.

Kantu bat naiz, hegoak eman dizkit denborak,
bizi guzia igaro dut oinez
isiltasunaren
eta hitz zaratatsuen atzetik.
nire hizkuntza etsian
bidazti, bagajerik gabe,
soilik izar baten arrastoa uzteko
zure arrano bihotzean.

Jatorrizkoa kitxua: Takiy

Itzulpena gaztelaniatik: Garazi Ugalde Pikabea

Elvira Espejo

Chhuchharapi
chhuchharapi lorea
hasi berri da nire unea

*

Ekia mendi gainean
eta ni besteren herrian

*

Wichhu belar, belar zakar
itzulerako bidea belarrez belar

*

Zer dabil taupa-taupa?
Plaza hutsean, zer dabil taupaka?

*

Sisirqiña, sisirqiña adarra
banoa banoala

*

Tanitani, tanitani lorea
nik zu banintza
ihes egingo nuke herrira

*

Asun txiki, asun txiki
jostari nire bidean!

*

Chanachana, chanachana lorea
bertso honekin hil nadila

Jatorrizkoa aimaraz

Itzulpena gaztelaniatik: Garazi Ugalde Pikabea